

## ZANGARIK IREKI GABE HODITERIA ALDATUKO DA BERRIRO


Bi urte igaro dira AMVISAK hornidura-hoditeriak berritzeko Relining izeneko metodologia lehen aldiz abian jarri zuenetik; metodologia horren bidez, dentsitate handiko polietilenoaz egindako hodi berria sartzen da ordezkatu behar duen fibrozementuzko hodian zehar, eta handik eramaten da.

Oraingo honetan, Forondako Atea kaleko bi espaloietan aldatuko da hoditeria: 2.590 m luzeko fibrozementuzko hoditeria, 400 mm-ko diametrokoa, ordezkatuko da, eta haren lekuan polietilenoazko hoditeria, 355 mm-ko diametroa duena, jarriko da; lanaren lizitazio-aurrekontua 667.808,03 €-koa da (BEZ gabe).

Futura Planaren garapenari eta ur-eskarian izandako murrizketa garrantzitsuari esker, ur-hoditerien diametroari eusteko modua izango da, eta optimizatu ere egin daiteke, emari berriei egokitzuz. Horrela soilik sar daiteke hodi berria zaharraren barnean, eta banaketa bermatzea eta sarea ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik askoz baldintza onuragarriagoetan berritzea ekarriko du horrek.

### Zangarik gabeko sistemaren abantailak

- Ez dago espaloiak puskatu beharrik, eta, beraz, puskatzeak ekarriko litzuzkeen eragozpenak saihesten dira.
- Eraikuntza-hondakin gutxiago sortzen da, eta horrek energia eta baliabideak aurrezteko dakar.
- Gaur egungo fibrozementuzko hoditeriari balioa ematen zaio berriro: lehertzeko arrisku handia zuen presio-hoditeria izatetik polietilenoazko hoditeria berria biltzen duen kapsularen zati izatera pasatuko da, babestu egingo baitu horrela.
- Fibrozementuaren manipulazioa saihesten da.
- Edukiera hidrauliko bera lor daiteke diametro txikiagoko hoditeriarekin, polietilenoak marruskadura-koefiziente txikiagoa baitu urarekin.
- Lan-epeak murrizten dira, eta errendimenduak hobeak dira.
- Aurreko abantaila horiek guztiak aurrezpen ekonomikoa dakarte, ohiko sistemarekin alderatuta.



Hoditeria aldatzen Jacinto Benavente kalean: Ø280 mm-ko polietilenoa Ø300 mm-ko fibrozementuzkoan

## Egiten ari diren lanak edota aurreikusita daudenak

- Jacinto Benavente eta Argoi kaleen hornidura-sareak berritzeko lanak zangarik gabeko teknologiaren bidez; 425.955,76 €-ko inbertsioa adierazten du (BEZ gabe).
- Hornidura-sarea berritzeko lanak Ehari-Gobeun; lehen fasean, 1.688.970,54 €-ko inbertsioa adierazten du, eta 1.251.697,70 €-koa, berriz, bigarren fasean (BEZ gabe).
- Mataukuko Administrazio Batzarrean, ur zikinen sarea hobetzeko lanak; Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren barnean sartuta daude, eta 598.583,45 €-ko kostua dute (BEZ gabe).
- Aberasturiko Administrazio Batzarrean, AMVISAREN edateko uraren saretik bideratutako hornidura-lanak eta Aberasturitik Otazura bitarteko ur zikinen sareko bilgailu eta interzeptagailuen eraikuntza-lanak; Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren barnean txertatuta daude, guztira, 2.115.358,25 €-ko kostua dute (BEZ gabe).
- Ur zikinen sarea berritzeko lanak Gamarrako Atean, III. fasea (542.098,55 €-ko kostua dute, BEZ gabe) eta Mendozako eta Gometxako Administrazio Batzarretan (guztira, 2.620.426,65 €-ko kostua dute, BEZ gabe).
- Otazuko bi hobi septikoak kentzeko lanak eta bertako ur zikinak kudeatzeko hoditeria eta instalazio berriak eraikitze lanak; 426.859,55 €-ko balioa dute (BEZ gabe).

## Egin berri diren informazio-kanpainak



Abuztuan, **informazio-kanpaina** bat egin zen, **2013. urtean zehar edota urteko lau fakturazioetatik gutxienez hirutan batez beste eguneko 600 litro baino gehiagoko ur-kontsumoa zuten etxebizitzetara zuzenduta**, beharrezkoak ez diren ur-kontsumoak murrizten laguntzeko eta abonatuak hauteman ez arren izan daitezkeen arazoak zuzentzeko.

Gainera, **barneko instalazioetan kontrolatu gabeko ur-isuriak daudenerako jarduteko gida** bat ere egin da. Kasu horietan, AMVISAK arazoaren berri ematen die idatziz isuria duen instalazioari dagokion kontratuaren titularrari (partikularrei) edo titularrei (komunitateei), arazoa konpon dezaten.

Urrian, bestalde, **udaleko gizarte-etxeetan eta kiroldagietan kokatuta dauden informazio-puntuak** eguneratu egin dira; informazio-puntu horiek zentro bakoitzaren ur-kontsumoaren bilakaera jasotzen dute, bai eta bakoitzaren portaera ere, eraginkortasunaren ikuspegitik.

## IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: [info@amvisa-futura.org](mailto:info@amvisa-futura.org)